AGENCIA NACIONAL DE EVALUACIÓN DE LA CALIDAD Y ACREDITACIÓN

Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentzia

Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco

| | |
|---|---|
| **DOCENTIA** | **DOCENTIA** |
| **(Unibertsitateko irakasleen irakaskuntza-jardueraren ebaluazioari laguntzeko programa)** | **(Programa de apoyo para la evaluación de la actividad docente del profesorado universitario)** |
| 2007ko deialdia | Convocatoria 2007 |

## 1. Sarrera

Unibertsitateek bertako ikasketei buruzko funtsezko erantzukizuna dute, eta ikasketa horiek benetako Goi Mailako Hezkuntzarako Europar Esparrua osatzeko alderdi garrantzitsuenak dira. Goi-mailako Hezkuntzaren testuinguruan, non Europako unibertsitateek kalitatezko irakaskuntza eskaintzeko erantzukizuna beren gain hartzen duten, Unibertsitateko irakasleen gaitasuna eta trebakuntza dira konfiantza gehien ematen dutenak unibertsitateek gizartearekin duten konpromisoa betetzeko duten ahalmenari dagokionez.

Gaur egungo testuinguruan, unibertsitateek gero eta erantzukizun handiagoa hartzen dute beren gain bertako irakasleak kontratatzeko eta izendatzeko prozedurei dagokienez, eta horren ondorioz, prozedurak garatu behar dituzte haien jarduera balioesteko, baita haiek prestatzeko eta adorea emateko ere, irakasle horien gaitasuna eta irakaskuntza-arloko trebakuntza bermatzearren. Irakaskuntza-jardueraren ebaluazioa batez ere garrantzitsua da unibertsitateentzat bertako ikasketen kalitatearen bermeak irakasle-plantillaren gaitasuna bermatzeaz gain, unibertsitatean ematen den irakaskuntzaren kalitatea bermatzen duelako bereziki.

Horretaz gain, indarrean dagoen legezko esparruak lotu egin ditu irakaskuntza-jardueraren ebaluazioa eta Eusko Jaurlaritzak unibertsitateko irakasleei lansari osagarriak ezartzeko aukera. Irakaskuntza-arloko pizgarri horrek ondorio positiboak izan litzake irakaskuntza-jarduera aintzakoagotzat hartzeari begira.

## 1 Introducción

Las universidades tienen la responsabilidad fundamental sobre la calidad de sus estudios y representan el factor más relevante en la configuración de un verdadero Espacio Europeo de Educación Superior. En un contexto de Educación Superior donde las universidades europeas asumen la responsabilidad de ofrecer una enseñanza de calidad, la cualificación y la competencia del profesorado universitario son algunos de los elementos que ofrecen más confianza sobre la capacidad de las universidades para cumplir su compromiso ante la sociedad.

En el contexto actual, las universidades asumen cada vez más una mayor responsabilidad en los procedimientos de contratación y nombramiento de su profesorado y, en consecuencia, deben desarrollar procedimientos para la valoración de su desempeño, así como para su formación y estímulo, para garantizar su cualificación y competencia docente. La evaluación de la actividad docente resulta especialmente relevante para las universidades en la medida en que la garantía de calidad de sus estudios pasa por asegurar no sólo la cualificación de su plantilla de profesores sino especialmente la calidad de la docencia que en ella se imparte.

Además, el marco legal vigente ha asociado la evaluación de la actividad docente a la posibilidad de que el Gobierno Vasco establezca retribuciones adicionales al profesorado universitario. Este incentivo docente podría tener efectos positivos de cara a incrementar la consideración de la actividad docente.

Irakaskuntza Jarduerararen Ebaluazioari Laguntzeko Programarekin (DOCENTIA), Uniqual Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziak (aurrerantzean Uniqual) unibertsitateen eskaerak asebete nahi ditu, baita unibertsitateko irakasleen kalitatea bermatzeko eta haien garapena eta onarpena bultzatzeko hezkuntza-sistemak eredu eta prozedura batzuk izateko duen premia ere.

Con el Programa de Apoyo a la Evaluación de la Actividad Docente (DOCENTIA), Uniqual Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentzia – Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco (Uniqual en adelante), pretende satisfacer las demandas de las universidades y la necesidad del sistema educativo de disponer de un modelo y de unos procedimientos para garantizar la calidad del profesorado universitario y favorecer su desarrollo y reconocimiento.

Programa hau diseinatu da, unibertsitateko autonomiaren barnean, unibertsitateen jarduna bideratzeko, eta aldi berean irakaskuntza-jarduera ebaluatzeko eta unibertsitateko irakasleentzako prestakuntza-planak garatzeko unibertsitateek duten rola gero eta garrantzitsuagoa izan dadin.

Este programa se ha diseñado de modo que, dentro de la autonomía de las universidades, oriente la actuación de éstas al tiempo que potencia el papel cada vez más relevante que las universidades han de jugar en la evaluación de la actividad docente y en el desarrollo de planes de formación de su profesorado.

Programak aintzat hartu du Uniqualek hartutako konpromisoa, hau da, unibertsitateekin, Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentzia Nazionalarekin (ANECA), Kalitatea Ebaluatzeko Autonomia Mailako Agentziekin eta Hezkuntza Administrazioekin sinatutako lankidetza teknikorako markoetan parte hartzeko eta horiek bultzatzeko konpromisoa. Horren ildotik, programak marko irekia izan nahi du erakundeek parte har dezaten.

El programa toma en consideración el compromiso de Uniqual de participar y apoyar los distintos marcos de colaboración técnica con las universidades, la Agencia Nacional de Evaluación de la Calidad y Acreditación (ANECA), las Agencias de Evaluación de la Calidad Autonómicas y las distintas Administraciones Educativas. En este sentido, el programa pretende ser un marco abierto a la participación de dichas instituciones.

## 2. Deialdiaren helburuak

Programa honen helburua –deialdi honekin bete nahi da– unibertsitateei laguntzea da irakaskuntza ebaluatzeko berezko prozedurak diseinatzen eta aplikatzen, unibertsitateko irakasleen irakaskuntzaren kalitatea bermatzeko, baita irakasle horien garapena eta onarpena bultzatzeko ere; eta horretarako,

## 2 Objetivos de la convocatoria

El objetivo del Programa, que se pretende cubrir con la presente convocatoria, es apoyar a las universidades en el diseño y aplicación de procedimientos propios de evaluación de la docencia con el fin de garantizar la calidad docente de su profesorado y favorecer el desarrollo y reconocimiento

haiei buruzko kanpoko azterketa egingo du agentzia batek.

del mismo, mediante su evaluación externa por una agencia.

**3. Parte-hartzaileak**

**3 Participantes**

Deialdi hau Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitate guztiei zuzenduta dago.

La presente convocatoria está dirigida a todas las universidades del Sistema Universitario Vasco.

**4. Deialdira aurkezteko prozedura**

**4 Procedimiento para presentarse a la convocatoria**

Irakasleen jardueraren ebaluazioari laguntzeko programan (DOCENTIA) interesa duten unibertsitateek parte hartzeko eskabidea bete beharko dute dokumentu honetako I. eranskinean azaltzen den ereduaren arabera. Eskabidea unibertsitateko legezko ordezkariak sinatu beharko du.

Las universidades interesadas deberán cumplimentar la solicitud de participación en el programa de apoyo a la evaluación docente del profesorado (DOCENTIA) según el modelo que figura en el Anexo I de este documento. La solicitud deberá llevar la firma del representante legal de la universidad.

Eskabidea Uniqualera bidali beharko da, posta elektronikoko helbide honetara: docentia@uniqual.org eta posta arruntez honako helbide honetara:

Uniqual – Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentzia
San Prudentzio kalea, 8
01005 Vitoria- Gasteiz

La solicitud deberá enviarse a Uniqual a la dirección de correo electrónico docentia@uniqual.org y por correo postal a:

Uniqual- Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco
C/San Prudencio, 8
01005 Vitoria- Gasteiz

Eskabidea aurkezteak esan nahi du deialdi honetako baldintzak onartzen direla.

La presentación de la solicitud implica la aceptación de las condiciones de esta convocatoria.

Eskabideak Uniqualen aurkezteko epea 2007ko maiatzaren 21era bitarte izango da.

El plazo de presentación de solicitudes a Uniqual será hasta el 21 de mayo de 2007.

**5. Parte-hartzea formalizatzea**

**5 Formalización de la participación**

Deialdi honetan parte hartuko duten unibertsitateak argitaratuko ditu Uniqualek bere web-orrian.

Uniqual publicará en su página Web las universidades participantes en la presente convocatoria.

## 6. Programaren faseak

Unibertsitateko irakasleen irakaskuntza-jardueraren ebaluazioari laguntzeko programaren faseen kronograma honako hau da:

1) Deialdia, eredua eta ebaluazio-prozedura egiteko jarraibideak 2007ko martxoaren 27an argitaratuko dira Uniqualen web-orrian.

2) Irakasleen irakaskuntza-jardueraren ebaluazioari laguntzeko programaren (DOCENTIA) inguruko prestakuntza 2007ko apirilean emango zaie Unibertsitateko teknikari arduradunei.

3) Parte hartuko duten unibertsitateek gauzatuko dituzten irakasleen irakaskuntza-jarduera ebaluatzeko ereduak eta prozedurak diseinatzeko fasea 2007ko apirilean gauzatuko da.

4) Ebaluatzeko ereduen eta prozeduren diseinuaren egiaztatzeari 2007ko urriaren hasieran ekingo zaio, eta urte horretako amaieran bukatuko da egiaztatzea.

5) Uniqualek eta Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentzia Nazionalak (ANECA) egiaztatze-txosten bat igorriko diete parte hartu duten unibertsitateei. Egiaztatze-txosten hori zera izan daiteke: positiboa, negatiboa, edo positiboa baldintzekin. Azken kasu horretan, unibertsitateak sei hilabeteko epea izango du, txostena jasotzen duenetik zenbatzen hasita, bertan azaltzen diren ez-adostasunak konpontzeko.

## 6 Fases del programa

El cronograma de las fases del programa de apoyo a la evaluación de la actividad docente del profesorado universitario es el siguiente:

1) La publicación de la convocatoria, del modelo y las orientaciones para la elaboración del procedimiento de evaluación se hará en la Web de Uniqual el 27 de marzo de 2007.

2) La formación en el programa de apoyo a la evaluación de la actividad docente del profesorado (DOCENTIA) a responsables técnicos de las universidades se realizará durante el mes de abril de 2007.

3) La fase de diseño, por parte de las universidades participantes, de modelos y procedimientos para la evaluación de la actividad docente del profesorado se desarrollará durante los meses de abril a septiembre de 2007.

4) La verificación del diseño de modelos y procedimientos de evaluación comenzará a principios de octubre de 2007 y finalizará a finales de este mismo año.

5) Uniqual y la Agencia Nacional de Evaluación de la Calidad y Acreitación (ANECA) remitirá a las universidades participantes un informe de verificación. Este informe de verificación podrá ser positivo, negativo o positivo con condiciones. En este último caso, la universidad dispondrá de un plazo de 6 meses, a contar desde el momento de la recepción del informe, para solventar las no conformidades señaladas en el mismo.

6) Unibertsitateek 2008. urtetik aurrera ezarriko dute irakasleen irakaskuntza-jardueraren ebaluaziorako diseinua.

7) Unibertsitateetan aplikatu den ebaluazio-prozeduraren bitartez lortutako emaitzak 2010. urtetik aurrera ziurtatuko dira.

**7. Programaren jarraipena eta koordinazioa**

Programaren jarraipena eta koordinazioa jarraipen-batzorde baten bitartez gauzatuko da. Batzorde horretan eraginpeko agentzia guztiek hartuko dute parte, eta Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentzia Nazionala (ANECA) izango da buru.

**8. Programaren amaiera**

Uniqualek, Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentzia Nazionalarekin lankidetzan, konpromisoa hartu du parte hartu duten unibertsitateetako teknikariak trebatzeko.

6) Las universidades implementarán el diseño de la evaluación de la actividad docente del profesorado a partir de 2008.

7) La certificación de los resultados obtenidos mediante el procedimiento de evaluación aplicado en las universidades se realizará a partir de 2010.

**7 Seguimiento y coordinación del programa**

El seguimiento y coordinación del programa se realizará mediante una comisión de seguimiento en la que participarán representantes de todas las agencias implicados y será presidida por la Agencia Nacional de Evaluación de la Calidad y Acreditación (ANECA).

**8 Financiación del programa**

Uniqual, en colaboración con la Agencia Nacional Nacional de Evaluación de la Calidad y Acreditación (ANECA) se compromete a formar al personal técnico de las universidades participantes.

**I. ERANSKINA: Eskabide-orria**

Nik, ___________________ jaunak, _______________ Unibertsitateko legezko ordezkari izanik, helbidea: ______________________, IFK: ________________________, adierazten dut Unibertsitate honek Unibertsitateko Irakasleen Irakaskuntza Jardueraren Ebaluazioari Laguntzeko Programaren (DOCENTIA) deialdian parte hartu nahi duela, eta horrela jasota gera dadin,

Stua.:
2007ko_______________aren ___(a)

**ANEXO I: Ficha de solicitud**

Sr. D. ___________________ en calidad de representante legal de la Universidad _______________ con domicilio en ______________________, C.I.F. ________________________, expongo el interés de esta Universidad en participar en la presente convocatoria del Programa de Apoyo a la Evaluación de la Actividad Docente del Profesorado Universitario (DOCENTIA), y para que conste,

Fdo.:
_______________, _______________ de 2007

| | | |
|---|---|---|
| **Unibertsitatea/ Universidad** | | |
| **Programaz arduratzeko izendatutako pertsonaren izena/ Nombre de la persona designada para llevar el programa** | | |
| **Fakultatea edo Unibertsitate Eskola/ Facultad o Escuela Universitaria** | | |
| **Kargua/ Cargo** | | |
| **Helbidea/ Dirección** | | **PK/C.P** |
| **E-maila/ E-mail** | | |
| **Telefono-zenbakia/ Teléfono** | | |